


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



Bezeroek gure zerbitzua erreserbatu ahal izango dute online, gure webgunearen bidez, ordutegiak eta pertsona-kopurua aukeratuta, eta ordainketa txartel edo PayPal bidez eginez. Halaber, aplikazio mugikorreko erreserbak izango dira, baita telefono bidezko erreserbak eta posta elektroniko bidezko eskaerak ere, bezeroek modu eroso eta zuzenean egin ditzaten.

Gure presentzia digitala eta tokikoa indartuko dugu, Spotify, TikTok eta Instagram barne. Gainera, auzoetan kartelak eta panfletoak banatuko ditugu, eta gertuko jendearekin harreman zuzena bilatuko dugu proposamena hobeto ezagutarazteko.